

Ispilu artean, zaldia

Agus Perez

Luhusoko Harri Xuri aretoa leporaino beteta egon da *Zaldi urdina*-ren estreinaldirako, eta emanaldia hasi aurretik ikustekoa zen Euskal Herri osoko zenbat lekutatik zetorren jendea. Hasi da euskal teatroaren denboraldia, indartsu hasi ere, euskara hutsez aritzen diren hiru konpainiaren elkarketa emankorren ondorioz.

Honezker mitiko bihurtu den *Errautsak* harekin hasi zenak eta gero *Hamlet* eta *Francoen bilobari gutuna*-rekin jarraitu zuenak aurrera egin du hurrengo

pauso batekin, Hego Euskal Herrian hain aztarna iluna utzi zuen heroinaren kontua aztertuz eta haren sustrai eta adarretan arakatuz. Orain *zaldi urdina* deitu diote, harrezkerotik droga sintetiko asko sortu direlako eta, dirudienez, aspaldiko *zaldia* berriz ere dabilelako dantzan.

Unai Iturriaga eta Igor Elortza-ren testuan kontu asko azalera-tzen dira droga haren harira, eta kontu horiek gizarte-ehunaren hainbat sektore jotzen dituzte, bizitza errealean gertatu bezala: gazteak, haien sendiak, droga-banaketan aritzen zirenak, herri bakoitzeko Polizia, Guardia Zibila... Haien artean, Amets gazte

**Zaldi urdina obrako aktore taldea, entsegu batean.** AINHOA RESANO

idealista eta bere nebaren lagun drogazalea izango dira lehen letroko protagonistak. Ispiluen artean ibiliko dira, labirinto batean bezala, beraiek baino handiagoak diren helduen iragan eta botere-

tsuen interes lohiak saihestu nahian.

Hortaz, ispiluak eta haien deribatu hurbilak –beira hutsak, sare metalikoak, panel argiztatuak...– izan dira nagusi Ximun Fuchs-en planteamendu eszenikoan. Elementu soil haiekin eratu dira argumentuak eskatutako giro guztiak –gurasoen etxea, dantzalekua, polizia-etxea, espetxeko ziega...–, eta dinamismo handiz igaro gara egoera batetik bestera. Zazpi antzezleek, berriz, beren rol nagusiei eutsi diete behar izan diren une guztietan, baina bitartean koru moduan funtzionatu dute, dantzalekuko gazteak izan zein herri hartako belaunaldi desagertuaren irudi estatikoak izan. Horrek, jakina, koordinazio itzela eskatu du haien artean, baina aldi berean, nolabaiteko gristasuna edo distira falta ekarri du jantzetan, pertsonaia batetik bestera bat-bateko jauziak egin ahal izateko.

KRITIKA **Antzerkia** **'Zaldi urdina'**

Konpainiak: Artedrama, Axut! eta Dejabu. **Testua:** Unai Iturriaga, Igor Elortza. **Zuzendaritza:** Ximun Fuchs. **Zuzendari laguntzailea:** Ainara Gurrutxaga. **Koreografia:** Philippe Ducou. **Musika:** Asier Ituarte. **Argiak eta eszenografia:** Josep Duhau, Aitz Amilibia. **Antzezleak:** Miren Alcalá, Edurne Azkarate, Olatz Beobide, Manex Fuchs, Ander Lipus, Urko Redondo, Oier Zuñiga. **Lekua:** Luhusoko Harri Xuri aretoa. **Eguna:** Urriak 11.

Aurrekoetan bezala, oso foku gutxi erabili dira argien diseinu dramatikoan, eta haiekin batera eredugarria izan da ispilu zatietan egindako eszena, thriller onenaren itxura eman duena. Bestetik, sinbolismo handikoa izan da pertsonaia batzuk txotxongi-loak balira bezala maneiatuak izatea, haien atzean beste aktore bat zebilela haien burua eta besoak mugiaraziz. Aurkikuntza eszeniko handia, zinez. Ezin dugu aipatu gabe utzi aguazilaren pertsonaiaren dentsitatea –Ander Lipus–, eta pozteko modukoa da Olatz Beobide bezalako figura eszeniko bat antzeztalde honetan integratu izana. Azkenik, deskubrimendu handi bi egin ditugu estreinaldi honetan: Edurne Azkarate Ametsen rolean eta Oier Zuñiga bere nebaren lagunarenean.

berria ekitaldiak

Vaiven Producciones konpainiak aurkezten du:



ERLAUNTZA

Azaroak 9
Larunbata • 19:30Altsasu
Iortia kulturegunea**Sarrerak:**

• Aurretik **10€** (BERRIA)lagunek **8€** • Egunean, **12€** (BERRIA)lagunek **10€** - txartelarekin)

Sarrerak salgai:

• BERRIAN: Berria.eus/berrialaguna/denda helbidean edo **943-30 43 45** telefonora deituz.
• Iortia kulturegunean eta www.iortiakultura.com helbidean.

Antolatzaileak:

berria**BADOK**
BERRIAKO
DIGITAL MARKETING AGENTZIA**Mank**
s a k a n a

Laguntzaileak:

Nafarroako
GobernuaGobierno
de NavarraAltsasuko
Udala

'Iruña-Veleia' auziaren epaiketa 2020ko otsailaren 3an hasiko dela berretsi dute

ARKEOLOGIA • Iruña-Veleiako aztarnategiko (Iruña Oka, Araba) us-
tezko faltsutzeengatik, Eliseo Gil, Oscar Escribano eta Ruben Cerdan
epaitzen hasiko dira 2020ko otsailaren 3an. Auziko alde guztiak –Ara-
bako Foru Aldundia, Fiskaltza eta auzipetuen abokatuak– elkartu zi-
ren atzo. Ez zuten akordioak lortu, epaiketaren data mantendu da.

3.000

OTEIZAREN LANEN IKUSLEAK

Herenegun arte Pasai Donibane-
ko (Gipuzkoa) Victor Hugo etxean
ikusgai egon zen *Oteiza. Marraz-
kiak, estanpak, hitzak [eta eskultu-
rak]* erakusketa ikustera 3.000
pertsona inguru bildu dira erakus-
ketak iraun duen bi hilabete eta er-
dian. Hor ikusgai egon diren Jorge
Oteizaren dozenaka lanak Guada-
lajaran (Espainia) erakutsiko dituz-
te datorren astetik abenduaren 7ra
bitartean.

Gabriel Arestiren jaiotza urteurrena ospatu dute Bilbon

LITERATURA • Gabriel Arestik
(Bilbo, 1933 - 1975) 86 urte beteko
zituzean atzo, bizi izan balitz,
eta, urteurrena ospatzeko, hain-
bat ekitaldi egin zituzten Bilbon,
ohi bezala, udalak antolatuta.
Goizean, lore eskaintza egin zio-
ten Pio Baroja plazan; arratsean,
haren poesia errezitala egin zuten
Ainara Ortega abeslariak eta Iña-
ki Salvador musikariak, Bideba-
rrieta Kulturegunean.